

Zer amesten duzu?.mp3

Zer adierazten dute Kati-Katixak aipatu dituen ametsak? Hona hemen:

Adituen arabera, auto batean zoazela autoaren kontrola galtzen baduzu, zure subkontzientek haxe oihukatzen dizu amets horren bidez, susto ederra emateaz gain: utzi behingoz dena kontrolatzen saiatzeari!

Erortzearekin amestea oso ohikoa omen da, eta, adituek diotenez, gure arbasoek utzi diguten herentzia da; dirudienez, gizaki primitiboak beldur ziren zerbait gertatuko ote zitzairen lo zeuden bitartean, eta, beraz, azkar esnatzeko defentsa mekanismo bat zen. Egun, urduri gauden seinale izan daiteke amets hau.

Sarritan errepikatzen den beste amets bat hegan egitea da. Aurrekoak ez bezala, amets hau izateak zentzu positiboa izan dezakeela diote adituek. Lasai gaudela, zoriontsu, ametsen bat betetzeko zorian... hegan egitearekin amestu baduzu, beraz, gozatu!

Klasean zaudela amesten baduzu, eta bat-batean irakaslea "Gaur, azterketa sorpresa!" oihukatuz sartzen dela, ez duzu azalpen askorik behar: subkontzientea urduri jarri duzun seinalea da!

Ametsetan hortzak erortzeak zorte txarra ekartzen zuela esaten zen garai batean, baina, psikologoek ustetan, konfiantza falta sinbolizatzen du, hortzek gure konfiantza ordezkatzeko dutelako.

Askotan errepikatzen den beste bat da norbait jarraika izatea. Norbaitek jarraitzen digu, eta guk edozer egiten dugu ihes egiteko. Psikologoek diotenez, amets honek adierazten du beldur garela zerbaiti aurre egiteko... zer ote da?